

# Asisko gutuna

2015ko Uztaila. 1. printzipioa.

Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

81. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Baldin eta zerbait jasotzen badugu gure hileroko otoitz topaketetan esker ona, gertutasuna, elkarrekiko ardura eta abar dira. Batzuek besteekiko dugun laguntza eta gertutasun horrek gure baitako onena sorrarazten du. Jainkoarekiko harremana bizkar hezur duen hilabete honetako hausnarketa eta lan pertsonala halako bizia ematen diguten sentimendu hauek kontzienteki jasoz bideratu nahi dugu.

## Gogoetarako gaia

### *Bihotz-samurtasuna*

Zein gutxi hitz egiten den bihotz-samurtasunaz eta zein beharrezkoa den bizitzarako! Sarritan nahasi egiten dugu bihotz-samurtasuna bigunak edo gozoak izatearekin, eta agian hori horrela da, baina askoz gehiago ere bai.

Besteen gainetik jartzea eta premian denaz ez okupatzea eta arduratzea (jada nahiko okupatuak gaudela eta) nagusitzen den mundu honetan, samurtasunaz hitz egiteak izan dezake bigunkeria- eta sentimentalkeria-usaina. Samurtasuna ez da malko errazera eraman dezakeen iraupen gutxiko sentimendua, besteei emana bizitzen eta besteekiko sentitzen den maitasuna eta txera agertzen ere aurrerago ez daramana. Samur izateak bizitzeko eta besteekin harremanean jartzeko moduak aldaraziko dizkigu.

Samurtasun hau besteari maitasuna adieraztea da, besteei emana bizitzeko jarreran ibiltzea, denentzat mundu zuzenago eta baketsuagoa bat eginez, non besteekiko gupida-sentimenduak gure bizitzan sakonena dena mugitzen duen, errukia bizitzaren eragile bihurtuz.

Bihotz samur izateko, beharrezkoa dugu geure buruarekin egiati izatea, eta geure handitasunak, mugak edo miseriak aitortzea. Gauza izan behar da, baita ere, besteen tokian libreki eta egiazki jartzeko: hari begiratu, harengana hurbildu eta hura besarkatu, hari pertsona izateko handitasuna aitortu, den bezalakoa delarik eta jokatzeko duen bezala jokatzeko duelarik, haren izateko edo bizitzeko modua gustuko badut ala ez.

Guztiek, ez soilik “eder egiten zaizkidanekin”, bihotz-samur izatea ez da erraza. Besteen lekuan jartzen lagun diezagun ikasketa-bide bat egin behar da, gure pertsona osoa emanaz hura onartu eta konprenitzeko.

Bihotz-samur izateko ez da nahikoa borondate ona. Zerbait jarri beharko dugu geure aldetik, baina horrela izaten batez ere ahaleginean ikasiko dugu eta egunero topo egitean Jainkoarekin, mundua salbatzeko Haur batengan samurtasun egin zen Jainko horrekin.

## Bibliako pasartea: Os 11, 1-9

«Israel haur zela maite izan nuen, eta Egiptotik ateratzeko dei egin nion neure semeari. Baina zenbat eta gehiago deitu nik, hainbat eta urutiago alde egiten zidaten. Baalei sakrifizioak eskaintzen zizkieten, sasijainkoei intsentsua erretzen. Nik erakutsi nion oinez Efraimi, besoetan eraman nuen. Hala ere, ez ziren ohartu nik nituela zaintzen. Amodio-lokarriz erakartzen nituen, maitasun-loturaz. Haurtxoa musuraino jasotzen duenaren antzeko nintzen haientzat; makurtu eta jaten ematen nion. Nola zapuztuko zaitut, Israel? Ikara degit bihotzak, gupidaz beterik. Ez diot haserreari pizten utziko, ez dut Efraim berriro desegingo, Jainkoa bainaiz ni, ez gizakia; santua ni zuen artean, eta ez nator-kizue haserre-suminez».

## Frantziskotar espiritualtasuna

«Elkar berriro ikusten zutenean, hain zen handia sentitzen zuten poza eta espirituko alaitasuna, ez baitziren oroitu ere egiten jasandako zoritxarraz eta pobretasun latzaz. Zintzo aritzen ziren egunero otoitzean eta eskulanean ... Barru-barruko maitasunez maite zuten elkar, eta amak semea zerbitzatzan eta zaintzan duen bezala zerbitzatzan eta zaintzan zuten batak bestea. Hain bizia zen haien arteko maitasun-sua, non erraza iruditzen baitzitzaien bizia ematea, ez Jesu Kristo gure Jaunaren izenagatik bakarrik, baita batak bestearen alde ere, eta gogoz gainera!

«Egun batez, bi anaia bidean zihoazela, ero batekin egin zuten topo, eta harrika hasi zitzairen. Bietako bat, harriek bere anaia jo behar zutelako ikustean, harrien eta anaiaren artean jarri zen berehala, hura babesteko ... Hauek eta antzekoak sarritan egin ohi zituzten. Apaltasunean eta elkar maitasunean oinarrituak eta finkatuak, bere nagusi balitz bezala ohoratzen zuten batak bestea. Apostoluen lehen garaiko Elizan gertatzen zen bezala, inork ez zuen esaten zeukana berea zuenik ... Haiek ugari zuten gauza bakarra gehiegizko pobretasuna bazen ere, eskuzabalak ziren beti, eta gogo onez banatzen zituzten beraiei emandako limosnak, Jainkoaren maitasunagatik eskatzen zieten guztiekin».

## Otoitza

Ene Jainko, zu zara nire bihotz-samurtasuna.  
Emadazu ni neu errukiz betetzeko grazia,  
estu bizi direnez errukitzekoa,  
eta premian direnei laguntzera korrika joatekoa.  
Emadazu gizagaixoen penak gozatzeko grazia,  
etxerik gabeei etxea ematekoa,  
sufritzen dutenak kontsolatzekoa,  
deprimituak animatzekoa.  
Emadazu behartsuei poza emateko grazia,  
negar egiten dutenentzat laguntza izatekoa,  
irain egiten didatenei barkatzekoa,  
gorroto nautenak maitatzekoa,  
gaizkiari beti ongi az erantzutekoa,  
inor ez baztertu eta denak errespetatzekoa. Amen

*Cantorberyko San Anselmo*

## Gutuneko azken hitzak

“Elkarlana herrien bihotz-samurtasuna da”. (Gioconda Belli)

### 2015ko uztailleko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate uztailleko erreferentzia guztiak:

1 Mt 8, 28-34	8 Mt 10,1-7	15 Mt 11, 25-27	22 Mt 31,1-9	29 Mt 13, 44-46
2 Mt 9,1-8	9 Mt 10,7-15	16 Mt 11,28-30	23 Jn 15, 1-8	30 Mt 13, 47-53
3.Jn 20, 24-29	10 Mt 10, 16-23	17 Mt 12, 1-8	24 Mt 13, 18-23	31 Lk 9, 18-26
4 Mt 9,14-17	11 Mt 19, 27-29	18 Mt 12, 14-21	25 Mt 20, 20-28	
5 Mk 6,1-6	12 Mk 6, 7-13	19 Mk 6,30-34	26 Jn 6, 1-15	
6 Mt 9,18-26	13 Mt 10, 34-11,1	20 Mt 12, 38-42	27 Mt 13, 31-35	
7 Mt 9, 32-38	14 Mt 11, 20-24	21 Mt 12, 46-50	28 Mt 13, 36-43	

Uztailleko Otoitza hilaren 30an izango da.

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)




Asis Sarea

646 21 48 96